

Paga, eskura edo kontuan? ZOZKETAREN ARAUAK

1. Erakunde antolatzailea

Caja Laboral Popular, Coop. de Cr ditok (aurrerantzean, LABORAL KUTxa; helbide soziala: Jos  Mar a Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa) merkataritza-sustapen bat egingo du, LABORAL Kutxaren blogean (blog.laboralkutxa.com) garatuko den lehiaketaren bidez.

2. Doakotasuna

Sustapena doakoa izango da; hau da, sariak lortzeko, ez da beharrezkoa izangokuotarik edo diru kopururikordaintzea.

3. Lurralde-eremua

Sustapena Espainiako Estatu penintsularrean egingo da, eta Internet bidez soilik parte hartu ahal izango da; hain zuzen, zozketa hau egiteko sortu den aplikazioaren bidez.

4. Iraupena

Sustapen hau 2018ko ekainaren 26an hasten da eta 2018ko ekainaren 10ean bukatzen da, 23.59etan.

5. Sustapenean parte hartzeko legitimazioa

Sustapenean parte har dezakete oinarrietako hirugarren puntuan zehaztutako lurralde-eremuan bizi diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek, baldin eta, aurrez, sustapen honetarako sortu den aplikazioan izena ematen badute. Lehiaketan parte hartzen dutenek ez dute inongo enpresaren ordainik jasoko (ez dirutan, ez espezetan), eta uko egiten diote horri buruzko erreklamaziorik egiteari. Parte-hartzaileek ezin izango dute dirurik jaso sarien ordez.

6. Sustapenaren garapena

LABORAL Kutxa zozketan parte hartzeko botoia izango duen aplikazio bat sortuko du.

Izena eman eta baliozko botoa ematen duten guztiek hartuko dute parte zozketan.

7. Sarien irabazleak

Zozketan sartuko dira, sustapenak irauten duen bitartean LABORAL Kutxaren aplikazioa erabiltzen dutenek eta izen ematean benetazko datuak jarri dituztenek. Irabazleak ausazko zozketa bidez aterako dira.

8. Saridunekin harremanetan jartzea eta saria ematea

LABORAL Kutxaren Facebook orrialdean jakin araziko dira publikoki irabazleen izenak. Egun horretan bertan LABORAL Kutxak emaila bidaliko die irabazleei haiek emandako posta elektronikoko helbidea erabilita. Pertsona horrek 5 egun izango ditu LABORAL Kutxarekin harremanetan jartzeko, gehienez ere.

Erantzuten duenean saria emateko datuak eskatuko zaizkio. Sustapenean parte hartzeko, lehiaketako irabazleek beren irudi-eskubideak eta haiek ustiatzeko ahalmena lagako dizkiote LABORAL Kutxari, material hori sustapen-helburuekin erabil dezan hedabide guztietan eta denboraldi mugagabea.

5 egun baliodunetan sarituekin harremanetan jartzerik ez badago, beraiek emandako datuak erabiliz, saria ordezkioentzat izango da, eta horrela hurrenez hurren, epai-mahaiak ezarritako ordenaren arabera.

9. Sarien deskribapena eta nola emango diren

Sari bakarra emango da. Zozketaren irabazlea 100 euroko balea jasoko du honako webgune honetan erabiltzeko: <http://laboralk.gift4you.es/login> web. LABORAL Kutxak posta elektronikoko bidez bidaliko dio saria bezeroak adierazitako helbidean.

Sariak indarrean dagoen legediak ezarritako zerga-sistemaren arabera arautuko dira eta ezingo dira diruz trukatu.

10. Araudia

Aplika daitezkeen legeen arabera, LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresa guztiek beretzat gordetzen dute arau hauek baliogabetzeko, deuseztatzeko edo aldatzeko eskubidea, baietalehiaketa, osorikedo partzialki, bertan behera uzteko eskubidea ere, baldin eta, edozein arrazoiengatik, lehiaketa ezin bada pentsatu bezala egin, akats tekniko baten, birus informatiko baten, bortxaren, iruzurraren, lehiaketaren segurtasuna edo administrazioa hondatzearen, edo kontrolpean ez dauden beste arrazoi batzuen ondorioz. Horrelakorik gertatuz gero, LABORAL Kutxak eta aipaturiko enpresek ez dute inolako betebeharririk edo erantzukizunik izango.

LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresek ez dute emango parte-hartzearen emaitzei edo edozein eskaeraren egoerari buruzko informaziorik. LABORAL Kutxak eta aplikazioarekin edota lehiaketarekin zerikusia duten enpresek ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta informazioaren bat okerra edo zuzena ez bada edo osorik ez badago, webguneko erabiltzaileen erruz gertatu nahiz lehiaketaren erabilerari lotutako taldeen erruz gertatu. Era berean, ez dute inolako ardurarik edo erantzukizunik izango, huts teknikorik, hardwarearen hutsik edo softwarearen hutsik gertatzen bada, sarea eteten bada, ordenagailuko transmisioan nahasketarik badago, edo lehiaketan zehar bestelako funtzionamendu okerrik badago. Halaber, ez dute erantzukizunik hartuko, eragiketan edo transmisioan akatsik, omisiorik, hondatzerik, eteterik, ezabatzerik edo atzerapenik gertatzen bada, komunikazio-linean hutsegiterik badago, edo lehiaketan parte hartzeko emandako informazioa lapurtu, suntsitu, baimenik gabe erabili edo aldatzen bada. LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresek ez dute erantzukizunik hartzen, telefono-linea edo -sarean, lineako konexio-sistemetan, zerbitzarietan, ordenagailuetan, softwarean edo posta elektronikoa arazo edo akats teknikorik gertatzen bada, akats horiek teknikoak, posta elektronikoa kontukoak, gizakiak eragindakoak edo Interneten edo edozein webgunetan izandako trafiko-pilaketatik sortutakoak badira. Hor sartzen dira parte-hartzaileen edo lehiaketarekin lotura duten pertsonen ordenagailuetan lehiaketan parte hartzean edo lehiaketaren materialik behera kargatzean eragindako matxurak edo kalteak. Arrazoiren batengatik eskaera bat ezin bada aurreikusitako moduan ikusi edo aurkeztu (birus informatiko baten edo antzekoen, bortxaren, iruzurraren edo akats teknikoaren ondorioz), LABORAL Kutxa eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresak ez dira erantzule izango.

Orobat, LABORAL Kutxak beretzat gordetzen du zilegi ez den moduan edo profil batekin edo gehiagorekin parte hartzen duten pertsonen saririk ez emateko eskubidea.

11. Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketen irabazleek, saria jasotzeko eskubidea izango badute, LABORAL Kutxari baimena eman behar diote beren izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Aitzitik, saria jasotzeko eskubidea galduko dute, eta ordezkoei jasoko dute, zozketan egokituriko ordenaren arabera.

12. Oinarriak onartzea

LABORAL KUtXakmerkataritza-jarduera honen ondoriozko edozein gorabehera egoki irizten dion eran ebatzi ahalizango du, baita atzeratu, aldatu edo ezeztatu ere.

Sustapenean parte-hartze hutsak oinarri hauek guztiak onartzea dakar berekin. Oinarriak www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

13. Erantzukizuna

LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresek ez dute erantzukizunik hartuko, hirugarrenei edo Interneti leporatu ahal zaizkien galera, hondatze, lapurreta eta atzerapenengatik, edo beste edozer gauzarengatik, aplikazio hau erabiltzea edo lehiaketan parte hartzea galarazten badute, edo horren ondorio badira.

Sustapenean parte hartzean, parte-hartzaile bakoitzak —eta, dagokionean, gonbidatuak— onartu egiten du, zuzenbidean beharrezkoa izan daitekeen erarik zabalenean, LABORAL Kutxa eta sustapen honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresak salbuestea, lehiaketan parte hartzeak edo sarien erabilerak (sarituen kasuan) zuzenean edo zeharka edozein erreklamazio edo kalte eragiten badute. Bestalde, baimena ematen diote LABORAL Kutxari beren izenak, ahotsak edo antzekoak erabiltzeko, lehiaketan edo lehiaketarekin lotuta, ezagututako edo oraindik aurkitu beharreko edozein modutan, eskaeraren amaierako uko-agirian eta adierazpenean ezarritakoaren arabera.

Halaber, LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresek ez dute bermatzen bloga erabilgarri dagoenik, jarraitutasuna izango duenik edo akatsik gabeko funtzionamendua duenik. Hori dela eta, lehiaketan parte hartzen duten pertsonak beren-beregi onartzen dute, indarreko legediak uzten duen neurrian, LABORAL Kutxak eta enpresa horiek ez dutela inongo erantzukizunik, webgunea erabilgarri ez egoteak, jarraitutasunik ez izateak edo funtzionamendu txarra izateak eragin ditzaketan kalteengatik, baldin eta horrek sustapen honetan parte hartzea, sustapena normaltasunez garatzea eta edukia edo partaidetzak behar bezala hedatzea eragozten badu.